

# Ezpalak

JON TORNER

## ‘Errore kodea’ tailerrak irekiko du Artelekuren egitaraua



ARTEA, TEKNOLOGIA ETA ESPERIMENTAZIOA ardatz dituen egitarau oparoa osatu du Donostiako Arteleku zentroak. Urtea amaitu bitartean, arte adierazpide diferenteen inguruko tailer eta ikastaroak eskainiko dituzte

bertan. Iñaki Graceneak zuzenduko duen *Errore kodea* serigrafia tailerra da lehenengoa. Apirilaren 14an hasi eta maiatzaren 29an amaituko da. Ikastaroak emango dituzten artisten artean, Isabel Herguera, Miguel Alvarez, Xabier Erkizia, Oier Iruretagoiena, Isidoro Valcarcel-Medina eta Esther Ferrer daude. Artista donostiarrak *Performancea gora eta performancea behera* ikastaroa eskainiko du ekainaren 8tik 19ra bitartean. Besteak beste, Nieves Correak, Maialen Lujanbiok eta Dora Garciak parte hartuko dute ikastaro horretan gonbidatu gisa.

## Bekak emango ditu Kreak

OROTARA 90.000 euro emango ditu Krea Adierazpide Garaikideak hiru ataletan banatuko diren beketan: Proiektuak, Ikerketa eta Prestakuntza. Bekak eskatzeko epea apirilaren 1etik ekainaren 1era arte luzatuko da. Beharrezko informazio guztia Krea proiektuaren webgunean ([www.kreared.com](http://www.kreared.com)) eskura dezakezue. Sortzaile berrien profesionalizazioa sustatzea dute xede beka horiek.

**Juanjo Elordik** eta Asisko Urmenetak mar-txoaren 20an aurkeztu zuten *Munduaren bira, doan!* filma, Animabasauri jaialdian. Filma apirilaren 24an iritsiko da zinema aretoetara. Hari buruzko informazioa [www.somuga.com](http://www.somuga.com) webgunean topatuko duzue.

**Aizkorri** argitaletxeak Pello Añorgaren *Ipuin-kontalariaren lapikoa* eta Josu Waliñoren *Lepoko minez zegoen hontza* ipuinak kaleratu ditu. Jokin Mitxelena egin ditu Añorgaren ipuineko ilustrazioak, eta Ander Hormazurik Waliñoren ipuinekoak.

**Gabriel Cualladó** argazkilaria espainiarraren (Masanasa, Valentzia, 1925 - Madril, 2003) erretratuz osatutako erakusketa paratu dute Iruñeko Contraluz galerian, *La mirada devuelta* (Begirada itzulia) izenburupean. Apirilaren 30a arte izango dira ikusgai.



**Kudai** taldeak *Shah mat* izeneko hirugarren diskoa plazaratu du Ortots diskoetxearekin. Hurrengo kontzertua Donostiako Doka aretoan eskainiko dute gipuzkoarrek, apirilaren 18an. Informazio gehiago: [www.myspace.com/kudaigara](http://www.myspace.com/kudaigara).

**Xiru** jaialdiaren 20. edizioa egingo da apirilaren 3tik 5era bitartean Gotaine-Iribarnen. Zuberoako eta kanpoko dantzari, musikari, kantari, aktore eta abarrek parte hartuko dute jaialdi horretan. Egitarau osoa <http://hebertik.wifeo.com/xiru-2009.php> webgunean kontsulta dezakezue.

● **Maite Gurrutxaga ilustratzaileak *Beterriko Liburu* aldizkarian:** «Helduentzako literaturan ilustrazioak bere tokia izan dezakeela sinetsiko balitz, jendeak garbi baleuka ilustrazioak helduentzat ere izan daitezkeela, ilustrazioek liburuak apaindu ez ezik osatu eta aberastu ere egin ditzaketela, lana askoz errazagoa izango litzateke (...) Heltzen hasten garenean, jende gehienak marrazteari uzten dio, irudimena erabiltzeari uzten dio; txikientzako zerbait balitz bezala hartzen da marraztea, eta ez dut uste hala denik. Beste adierazpen modu bat da, guztiz errespetagarria, baina txikitatik esaten dizute hamalau urterekin beste bide batzuk hartzen hasi behar duzula, marrazten jarraitzen baduzu ameslari bat zarela, despistatu bat..., konnotazio txar samarrak ditu».

● **Asier Zabaleta eta Mizel Theret koreografoen iriztiak jaso ditu *Berriak*. Zabaletaren hitzak dira hauek:** «Badirudi modernoa izateko modu batera jantzi behar dela, ez dakit zer entzun behar dela. Askotan, niretzat behintzat, daukagunarekin bide berriak bilatzea jadanik modernoa izatea da. Niretzat modernoena nire ama da, 73 urterekin edozein gauza onartzen duelako».

**Mizel Theret:** «Euskal Herrian haustura anitz dago, euskaldun, ez-euskaldun, politikan, kulturean... Dantzan ere, tradizionala eta besteak. Haustura horiek zinez arranguratzen naute. Nire azken obra honetan [*Dorrea*], amildegi horiek gaintzen ahalegintzeko gogoia ukan dut. Dantza garaikidea egiten dut, baina aldi berean nire kulturaz interesatzen naiz».

# Abarrak

UNAI BREA

## Maskaradak demografia datuei muturrekoa, urtero bezala



JO EZAZU ATEA Zuberoako edozein etxetan, eta norbaitek zabaltzen badizu, oso litekeena da dantzaria izatea, edo kantaria, edo aktorea. Agian hirurak batera. Zuberotarrek, zuberotar gehienek esango nuke –barka ausardia–, odolean daramatzate musika, dantza eta plazako lana oro har. Ez jakin zergatik, baina hala da.

2009an Barkoxeri egokitu zaio maskaradaren ematea. Hilaren 12an dute azken saioa, sorterrian, ohi denez. Orduantxe burutuko ditu aurtengo lanak azken urteotako maskaradarik onenak, edo hala da ene uste apalean bederen. Aitzindarietan neskak nagusi, azken hamarkadan ezarri den joerari jarraiki. Mutikoez –dantza baino errugbia maiteago omen– buhame eta kautera lanak atxikitzen segitzen dute, horri esker ez dira maskaradatik aldentu; hor dute *mêlée* ederrak egiteko aukera. Aurten ordea, mutikoeekin batera neska talde ederra ikusi ahal izan dugu buhamearena egiten. Eta hori ez da Zuberoan denen gustuko. Neskak dantzan aritzea begi onez ikusten duten batzuek ez dute ber iritzia andrazkoak maskaradaren beste eremu batzuk konkistatzen hasteaz. Maskarada gorriaren finezian egokia dirudi, nonbait, feminitateak; maskarada beltzaren zarpailleria anarkikoan ez omen du tokirik, iritzi horien arabera. Ea hamar urte barru leundu diren, iritziok. Guk baietz apustu.

Kontuak kontu, gorri nahiz beltz, aitzindari nahiz buhame, kautera, xorrotx edo kestu, denek oso maila ona ageri dute aurtten. Dantzarien kasuan, nabari da Patrick Queheille *Kanpo* irakaslearen lana, barkoxtarra bera. Buhameen antzerkia, berriz, inoiz baino landuagoa. Dantzari, kantari eta antzezle bakarrik ez, gidoilari onak ere baditu Zuberoak.

Igarri egiten da, azken batean, Barkoxek Zuberoan duen pisua. Kultur tradizio handikoa izanik, badu segurtatua harrobia puska baterako, aurten frogatu denez. Lagunduko du, halaber, herrialdeko hirugarren herri handiena izateak. Baina ez dadila inor hasi demografia kontuonatik etxafuegoak botatzen: 750 biztanle inguru ditu Barkoxek. Eta horietatik 45en batek hartu du parte maskaradan, gehienak oso gazteak. Kalkulatu portzentajea eta hortxe duzue, kuantifikatuta, Juan Antonio Urbeltzen esaldi honen esanahia: “Zuberoa, zuk asmatu dituzu kanta eta dantza”.

## kazeta.info

Iparralde Komunikazioa elkartera - Donibane Garazi

www.kazeta.info

ez galdu informazio harria...

**Kazeta.info** webguneak egunero gure herrietan pasatzen diren berriak ezagutzeko parada emanen dizu. Aitzina begira, informazioa atzematea errazago egin nahi dugu. Zure e-postan, egunaren kontakizuna eskura dezakezu. Egunero tenore berdinean, **euskaraz, eta urrikik**. Ez galdu harria. **Harpidetuz zaitetz!**

harremanak@kazeta.info